BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1062

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 8koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, beherago zehaztu aginduan aurreikusitako laguntzen 2012. urteko onuradunen zerrenda argitara emateko dena: Agindua, 2012ko apirilaren 10ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, zeinen bidez arautzen baitira unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa duten Gazteek Atzerriko Enpresetan eta Erakundeetan Praktikak egin ahal izateko, «Global Training» deituriko Beken programa abian jartzeko ahalmena duten erakundeentzako laguntzak.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela-eta, laguntza horien onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da onuradunen zerrenda. Hori guztia Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2012ko apirilaren 10ean emandako Aginduan aurreikusitako laguntzei dagokienez, agindu horretan arautu baitzen «Global Training» deituriko Beken programa.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulua bakarra.– Beherago zehaztu aginduan aurreikusitako laguntzen 2012. urteko onuradunen zerrenda argitara ematea, eranskinean agertzen den legez: Agindua, 2012ko apirilaren 10ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, zeinen bidez arautzen baitira unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa duten Gazteek Atzerriko Enpresetan eta Erakundeetan Praktikak egin ahal izateko, «Global Training» deituriko Beken programa abian jartzeko ahalmena duten erakundeentzako laguntzak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 8a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.

ERANSKINA

2012 GLOBAL TRAINING BEKAK

Erakundearen izena	Beka kopurua	Emandako zenbatekoa
Cámara de Comercio de Álava	21	230.280,00
Cámara de Comercio de Gipuzkoa	21	230.280,00
Cámara de Comercio de Bilbao	21	230.280,00
Fomento de San Sebastián	32	294.758,00
Fundación Novia Salcedo	43	459.026,00
Mondragon Unibertsitatea	37	412.618,00
Politeknika Ikastegia Txorierri, S. Coop.	32	327.418,00
Sabática Consultores, S.L.	24	276.547,00
Universidad de Deusto, S.L.	43	447.434,00
Universidad del País Vasco / EHU	26	266.242,00